

ez beñi-beñi erosia, baizik len dabilen beñi xamañen bat. Ontarako 200-dik 250 pesetaraño eralki litezke. Erosketa al bada, *Monte de Piedad Municipal*-en egin bedi.

III.—Barandiaran Jose Migel jaunak, beretzat aukuratu zan urgazletza oniritxirik, eskerak eman dizkigu.

IV.—Lakonbe jaunaren bidez, artu du Euskaltzaindiak *Sur l'Histoire du Breton* deitzen dan liburua. Emile Ernault bere egile jaunak Euskaltzaindiari eskeitzen dio. Eskerik asko.

V.—Itzbeñi-azterketan batzaraldiko garairik geiena igaro dute euskaltzain jaunak, ta *Actividad* arte iritxi dira.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren Gela nagusian, 1928'ko Lotazila'ren 19'an.

Batzaraldi ontara emen aipatzen diran euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, Urkijo, Landeñetxe, Olabide, Lhande, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitz egin da.

I.—Aita Intzak esan digu, Iruña-ko Apezpiku jaunak, oraintsu eman duela bere artzai-eskuitz bat, euskeraz eta erderaz idatzia. Pozik entzun du auxe Euskaltzaindiak. Gazteizko apezpiku jaunari eskari bat egitea erabaki da: eskari au ordea, arpegi-arpegiz egin bear litzaioke: erderazko itzaldiak ziara ultzeko, euskera besterik ez darabilkiten erietan.

II.—Aita Lhandek dio, eri euskaldun askotan, be-deratziurenak erderaz egiten dirala. Lenago ere ibili

zuen Euskaltzaindiak arlo auxe, ta orduan bezela erabaki da. Apaiz jaunai galdetzea zer bederatziruén bear duten Euskaltzaindiak igofi dezaien. Erabaki au ere Gotzai jaunari itzez-itzez egingo zaio.

III.—Gozai jaunari itz egin bear zaio *Santa Infancia* deitzen dan aldirokoa ume euskaldunentzak euskeraz argitaratu bear litzakela.

IV.—Iztegiaren lanetan jaúritu da, erderazko *ademan* arte. Ta beste gai batzuek bigaramonerako lagarik, otoitzez amaitu da batzaraldia.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren Gela nagusian, 1928'ko Lotazila'ren 20'an.

Auréko agirian aipatzen diran euskaltzain eta urgazle jaunak batzaraldian bildurik daude, eta, otoitzez asi da.

I.—Azkue jaunak lantxo bat irakuñi digu: *Aparición o presencia de la z en la conjugación familiar*. *Zetofek* esate baterako zer oteda z auxe?

II.—Larusket apaiz jauna, berak egin duen oraingoxe lan eder bategatik Euskaltzaindiak bere urgazle izendatu du.

III.—Iztegiko lanak auératu naiaz, Euskaltzaindiak lan eta lan dagi: bañan alpefikako ekite asko aienatzeko, auxe erabaki da: emendik auéerako lanik nagusienak Ormaetxea jaunak Euskaltzaindiari ekafi dezazkiola, bañan Azkue jaunak lan oietan, esku ta laguntza ipiñi ondoren. Erderazko *Aduana*-arte lan egin da.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.
